



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK, BIZKAIKO GARRAIO PUBLIKOAREN GAUEKO ZERBITZU GUZTIAK ORAINGOZ BERRESKURATZEAREN KONTRA

- Euzko abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek atzera bota dabe Metro Bilbaoko autobus zerbitzu osagarria eta Renfe Aldirietako autobusen “gautxoriak” berrezartea eskatzen eban EH Bilduren arauz besteko proposamena
- Proba medikoak bideratzen dirala eta Durangaldearen eta Gernikako ospitalearen artean zerbitzua ezartea be ez dau onartu Bizkaiko Parlamentuak.
- Miguel Angel Gomez Viar Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko foru diputatuak adierazo dauenez, eskaerak “ez dau justifiketan” Urdulizen garraio publikoa indartzea

(Bilbon, 2021eko abenduaren 29an). Gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietan egin dan urteko azkenengo batzordean, Batzar Nagusietako taldeek ez dabe pandemia deklarau aurretik martxan egozan Bizkaiko garraio publikoko gaueko zerbitzu guztiak barriro ezarteko akordiorik lortu. Bizkaiko Parlamentuak, Euzko Abertzaleen eta Euskal Sozialisten ordezkarien kontrako botoakaz, Metro Bilbaoko gaueko autobusak eta Renfe Aldirietako trenen “gautxori” zerbitzua berrezartea eskatzen eban EH Bilduren arauz besteko proposamena baztertu dau.

Koalizino abertzalearen ekimenak hiru puntu eukazan, eta bakotxa bere aldetik bozkatu da azkenean, baina emaitza beragaz: kontrako 9 boto (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak), abstentzino 1 (Talde Berezia-PP Bizkaia) eta aldeko 5 boto (EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia).

Lehenengo eta behin, Metro Bilbaori eta Bizkaiko Garraio Partzuergoari goizeko 05:00etatik eta gaueko 23:00etatik aurrera funtzionetan dauen eta Raul Mendez EH bilduko ahaldunak emondako datuen arabera lau zerbitzuetan “200 persona inguru” mobitzen dituan autobus osagarriaren zerbitzua “ahalik eta lasterren” berreskuratzeko eskatzen jaken. Koalizino abertzalearen bigarren eskariak “200.000 euroko” kostua daukan zerbitzu hori nogaz kudeatu behar zan jakiteagaz eukan zerikusia. “Epe ertainean”, zerbitzu hori Bizkaibuseko eskaintzan sartzeari defendidu dabe, “Uribe-Kosta eta Ezkerraldea - EHU” garraio publikoko zerbitzu erregularraren aurreproiektuaren



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

barruan. Eta, azkenik, hirugarren puntuan, Bizkaiko aldirietako eremuan “gautxori” zerbitzua berreskuratzeko eskatzen jaken Renferi eta Garraio, Mobikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari.

Unai Lerma jeltzalearen eretziz, kutsatze kopuruak gora egin dauen une honetan, “ez dira urrian, proposamena erregistrau zanean, emoten ziran baldintzak beteten”. “Ez dago zerbitzu horreek berreskuratzeko normaltasun egoerarik”. Metro Bilbaok eskaintzen dauen autobus zerbitzu osagarriaren lekualdaketari jagokonez, Jesus Maria Ortiz sozialistak esan dau eskaera hori “garaiz kanpoko” dala, Bizkaibuseko ibilbide horren aurreproiektua daborduko onartuta dagolako.

DURANGO ETA GERNIKA ARTEKO ETA URDULIZERAKO GARRAIOA

Bizkaiko Parlamentuak atzera bota dau Durangotik Gernikako ospitalera garraio publiko “zuzena eta kalidadekoa” “atoan” prestetea eskatzen eban Elkarrekin Bizkaiaren arauz besteko proposamena, Galdakaoko ospitalean egiten ziran Osakidetzaren zerbitzu eta proba mediko batzuk orain foru hiribildura eroateak eragindako mobikortasun-eskaereari erantzuteko.

Alderdi morearen ekimenak, Talde Berezia-PP Bizkaia eta EH Bildu taldeen babesagaz, etorkizuneko deribazino medikoetan garraio publikoaren alternatiben inguruko aurreiazko azterlana egiteko eskatzen eutson Eusko Jaurlaritzari, “linea barriak ezarri edo dagozanak indartu behar diran ala ez ebaluetako”, Emilio Lobato talde horretako batzordekideak adierazo dauenez.

Aldundia babesten daben taldeen eretziz, neurria “ez da beharrezkoa”, Durango eta Gernika artean garraio “ona” dagolako. Osakidetzaren erabagia bularreko minbiziaren baheketa probak egiteko eta itzarote zerrendak kentzeko “puntuala” zala gogorarazo dabe jeltzaleek eta sozialistek. Garraio lineak “ez dira eskariaren arabera kentzen edo jarten. Aldez aurreko azterlana behar dabe”, adierazo dau Jesus Maria Ortiz Euskal Sozialistak taldeko kideak.

Ahozko erantzun-eske batean Miguel Angel Gomez Viar Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko diputatuak, 2016an kanpoko enpresa batek egindako azterlanean oinarrituta azaldu dauenez, “ez dago justifikauta” Urdulizen garraio publikoa indartzea. Metro Bilbaoko sareagaz eta Bizkaibuseko 3531 eta 2166 lineakaz “eskualdeko eskaria estalduta dago”.

Alderdi moreak azalpenak eskatu deutzaz Aldundiari, Urdulizko ospitalea edegiteak eta Uribe Kostako udalerrri horretako biztanleriak izan dauen gorakadeak (“% 36” azken



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

hamarkadan) izan dituan ondorioak dirala eta. Bere berbetan, biztanle kopuruak “modu esponenzialean” hazten jarraitzen dau.

Amaitzeko, Bizkaiko Legebatzarrak, talde guztien babesagaz, Talde Berezia-PP Bizkaia taldearena izan ezik (abstenitu egin da), Gorka Ugalde Bizkaiko Garraio Partzuergoko zuzendari gerentea hurrengo Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko batzorde batera etortea onartu dau. Eskaera EH Bilduk egin dau, eta BGParen hainbat jarduketa “zuzenean” ezagutzeko interesa agertu dau, horreen artean Bizkaiko garraio-tituluen tarifen igoerearen inguruan 2022rako egindako azterlana, tarifen bateratzeari buruzko batzorde teknikoaren lana, Bilboko Metroko 1. eta 2. lineetan BARIK-MUGI alkarreragingarritasuna ezarteko proiektua, bizikleta elektrikoak kargetako guneen zerbitzua eta bizikleta elektrikoek ezarpena, eta Bizkaiko garraio publikoan “smartphone” bidezko balidazino-pilotua ezartea.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA, EN CONTRA DE RECUPERAR DE MOMENTO TODOS LOS SERVICIOS NOCTURNOS DEL TRANSPORTE PÚBLICO DE BIZKAIA

- **Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos rechazan una proposición no de norma de EH Bildu que pedía el restablecimiento del servicio complementario de autobús de Metro Bilbao y los “gautxoris” de Cercanías Renfe.**
- **La Cámara vizcaína rechaza también un servicio entre el Duranguesado y el hospital de Gernika por la derivación de pruebas médicas.**
- **El diputado foral de Transportes y Movilidad Sostenible, Miguel Ángel Gómez Viar, sostiene que la demanda “no justifica” reforzar el transporte público en Urduliz.**

(Bilbao, a 29 de diciembre de 2021). En la última comisión del año celebrada esta mañana en las Juntas Generales de Bizkaia, los grupos junteros no han alcanzado un acuerdo para pedir el restablecimiento de todos los servicios nocturnos del transporte público de Bizkaia que funcionaban antes de declararse la pandemia. La Cámara vizcaína, con los votos en contra de los representantes de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, ha rechazado una proposición no de norma de EH Bildu que pedía concretamente el restablecimiento de los autobuses nocturnos de Metro Bilbao y el servicio “gautxori” de las tres líneas de Cercanías Renfe.

La iniciativa de la coalición abertzale contaba con tres puntos que se han votado finalmente por separado, pero con idéntico resultado: 9 votos en contra (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos), 1 abstención (grupo Mixto-PP Bizkaia) y 5 votos a favor (EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia).

En un primer punto, se instaba a Metro Bilbao y al Consorcio de Transportes de Bizkaia a recuperar el servicio de autobús complementario de autobús “a la mayor brevedad posible”, que funciona a partir de las 5 de la mañana y de las 11 de la noche, y que mueve en sus cuatro servicios a “unas 200 personas”, según los datos que ha aportado el apoderado de EH Bildu Raúl Méndez. La segunda demanda de la coalición abertzale tenía que ver con quién debía gestionar este servicio que tiene un coste de “200.000 euros al año”. Han defendido que, “a medio plazo”, se incorporase este servicio en la oferta de Bizkaibus dentro del anteproyecto de servicio de transporte público regular



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

"Uribe-Kosta y Ezkerraldea - UPV". Y, por último, en un tercer punto, se instaba a Renfe y al Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana a recuperar el servicio de "gautxori" en el área de Cercanías de Bizkaia.

Para el jeltzale Unai Lerma, en estos momentos en los que el número de contagios está disparado, "no se dan las circunstancias que se daban en el mes de octubre", cuando se registró la proposición. "No hay una situación de normalidad" para recuperar estos servicios. En cuanto al traslado del servicio complementario de autobús que ofrece Metro Bilbao dentro de la oferta de Bizkaibus, el socialista Jesús María Ortiz ha señalado que esta petición es "extemporánea", ya que el anteproyecto de ese trayecto de Bizkaibus ha sido ya aprobado.

TRANSPORTE ENTRE DURANGO Y GERNIKA, Y A URDULIZ

La Cámara vizcaína ha rechazado también una proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia que pedía "de manera inmediata" habilitar un transporte público "directo y de calidad" desde Durango al hospital de Gernika, para dar respuesta a la demanda de movilidad motivada por el traslado de algunos servicios y pruebas médicas de Osakidetza a la villa foral, que antes se realizaban en el hospital de Galdakao.

La iniciativa de la formación morada, apoyada por el grupo Mixto-PP Bizkaia y EH Bildu, instaba al Gobierno vasco a que elaborase un estudio previo sobre las alternativas de transporte público en futuras derivaciones médicas "para evaluar si es necesario implementar nuevas líneas o reforzar las existentes", ha señalado el apoderado de esta formación Emilio Lobato.

Desde las filas de los grupos que apoyan al Gobierno foral, han argumentado que la medida "no es necesaria" ya que existe un "buen" transporte entre Durango y Gernika. Jeltzales y socialistas han recordado que la decisión de Osakidetza tenía un carácter "puntual" para hacer pruebas de cribado del cáncer de mama y eliminar listas de espera. Las líneas de transporte "no se quitan o se ponen a demanda. Necesitan un estudio previo", ha apuntado Jesús María Ortiz, del grupo Socialistas Vascos.

En una pregunta oral, el diputado de Transportes y Movilidad Sostenible, Miguel Ángel Gómez Viar ha explicado que en base a un estudio elaborado en 2016 por una empresa externa, "no se justifica" el refuerzo del transporte público en el municipio de Urduliz. "La demanda de la comarca está cubierta" con la red de Metro Bilbao y con las líneas 3531 y 2166 de Bizkaibus.

La cuestión partía de la formación morada que ha demandado explicaciones a la Diputación por los efectos que está teniendo la apertura del hospital de Urduliz y la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

creciente subida de la población de este municipio de Uribe Kosta, “un 36%” en la última década, y que sigue creciendo “de manera exponencial”.

Para terminar, el parlamento de Bizkaia ha aprobado con el respaldo de todos los grupos, a excepción del grupo Mixto-PP Bizkaia que se ha abstenido, que comparezca en una próxima comisión de Transportes y Movilidad Sostenible el Director Gerente del Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB), Gorka Ugalde. La petición ha procedido de EH Bildu que está interesada en conocer “directamente” diferentes actuaciones del CTB, como el análisis realizado para el año 2022 de la subida de tarifas de los títulos de transporte de Bizkaia, el trabajo de la comisión técnica en cuanto a la unificación tarifaria, el proyecto de implantación de la interoperabilidad BARIK-MUGI en las líneas 1 y 2 de Metro Bilbao, el servicio de puntos de recarga de bicicletas eléctricas y la implantación de un piloto de validación con “smartphone” en el transporte público de Bizkaia.